

Astrofisika eta genetika nagusi Elhuyar sarietan

ZIENTZIA-DIBULGAZIOKO, hiru sari, beka bat eta merezimenduzko saria banatu zituen joan den astean Elhuyarrek, CAF tren konpainiaren babesarekin.

Zientzia -kazetaritza alorrean, Zumaiaiko *Baleike* aldizkariko kazetari Gorka Zabaletak jaso zuen saria, *Ikaragarri bero zegoen zopa moduko bat zen hasieran unibertsoa* lanarekin. Angel Uranga CERNeko fisikariari egin dako elkarrietzeta izan da saritua. Isabel Mendizabalek egilearen tesian oinarritutako dibulgazio artikulua jaso zuen *Ijitoen jatorria, DNAn islatua* lanarekin. Zientzia dibulgazio artikulua jaso zuen *Galaxiek topo egiten dutenean* lanarekin irabazi du, Miguel Querejetak idatzia.



ELHUYAR.ORG

Sariez gain, zientzia gizartean sorkuntza beka eman da lehen aldiz eta *Balio berri* proiektuak irabazi du. Ondoko taldea da irabazlea: Arlette Apraiz, Doltza Oararte, Jaione Ortiz de Zarate, Maider Amutio, Nerea Andres eta Oihane Enbeita. Merezimenduzko saria 20 urte lanean daramatzan Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak jaso zuen.

Bahea

Mikel Arrizabalagak Berriako Ibilkari blogean esanak:

“Zergatik da hain eskasa euskararen presentzia mendi elkarteetako bizi-tzan?”

Zarauzko Pagoeta Mendizale Elkartekoen jarrera azpimarratu nahiko nuke. 2008 urtean 50 urte bete zituen elkarte honek 400 federatu inguru ditu eta kasik 800 bazkide, beraz, tamaina ertaineko elkarte kontsidera dezakegu. Antolatzen dituzten ibilaldietan erabiltzen dituzten txartel, diptiko, kontrol orri, diploma eta bestelako paperezko euskarrietan, argitaratzen duten aldizkarian, ospatzen dituzten bilera eta batzarretan, web gunean... euskara da erabiltzen duten hizkuntza bakarra. Zalantzarik gabe, jarraitu eta kopia beharrek adibidea, nahiz eta Gipuzkoan tirada handiena duen egunkariko kazetari batek aldizkaria dela eta hau esan “*es una pena que se publique íntegramente en euskera*”.

EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

Klase borroka eguneratua

MAIATZAREN LEHENA da aste honetan. 1986an Chicagoren zortzi orduko lanaldiaren alde izandako greba orokorraren ondorioz kondenatu eta urkamendian hil zituzten sei lagunen heriotza –beste bi bizi osorako kartzelarekin zigortu zituzten– tragiko eta heroikoa gogoratzeko ospatzen da. “Chicagoko martiriak” izan ziren. Lau urte geroago, 1890ean, Maiatzaren Lehena mundu osora zabalduta zen. Gertaera horiek agerian utzi zuten klase borroka zegoela: alde batetik patronala eta ohiko gobernu zegoen, euren errepresio eta guzti, eta bestetik langileak. Historian, klase borroka horrek aldi ugari izan ditu. Euskal Herrian, Bizkaiko Meatzaldea hastapeneko borroka latz horren lekuko izan zen. 1890ean greba orokorra egin zen Bilboko Ibaizabaleko ezker aldean, bereziki Zugaztietan eta Gallartan; bizitza duinaren alde borrokatu ziren, nagusien jabetzakoa ziren barrakoietan pilatuta bizi baitziren garai haietan. 1976an Gasteiz izan zen klase borroka horren adierazle modernoena; polizia fran-

kistak bost langile hil eta askoz gehiago zauritu zituen ordukoan. Klase borrokaren eskema bera mantendu zen baina: patronala eta gobernu alde batetik, langileak bestetik.

Aspaldion klase borroka desitxuratu eta desegiteko interes handia egon da, “garaiz kanpoko” omen delako. Haatik, “merkatuak” eta multinazionalak tartean direla, klase borroka eguneratu eta erradikalizatu egin da. Azken bost urteetan, hainbeste sufrimenduz eta malkoz lorturiko ongizatea deuseztatu dute, eta klase borroka agerian geratu da berriz ere; ohiko langile klaseari, krisiak pobretutako beste sektore profesional batzuk gehitu zaizkio gainera. Krisiak populazioa “proletarioago” bihurtu du, nolabait esatearren. Denon zeregina behar luke sektore horiek guztiak batu, kapitalismoari –eta bere gestoreei– aurre egin eta alternatiba solidarioa sortzea.

Juan Mari Arregi

